



*Loiolako Foroan parte hartu duen taldea*

## **VI. Loiola Foroak Ikaslearen Estatutu berria aztertu du DUn**

VI. Loiola Foroa, Izaera eta Misioko eta Unibertsitateko Elkarteko errektoreorde José

Javier Pardok deitua, joan den otsailaren 9an izan zen. Bertan egon zen, besteak beste, Jaime Oraá errektorea. Foroari hasiera emateaz arduratu zen, balioetan prestatzeari buruzko hausnarketa batekin,

Unibertsitateko Ikaslearen Estatutu berriaren argitan. Topaketan parte hartu zuten Unibertsitateko fakultateetako ordezkariak eta ordezkariordeak, baita Komunikazioko, Hizkuntza Politikako eta Gizarte Zabalkundeko errektoreordea den Roberto San Salvador del Vallek, Arlo Funtzionalen eta Zerbitzuen zuzendari nagusia den Luis Ramón Arrietak eta fakultateetako eta ikastegietako ikasleen arduradunek ere. Foro horretan eztabaidatu eta jaso ziren ordezkariaren ekarpenak, Deustuko Unibertsitatean Unibertsitateko Ikaslearen Estatutu berria, Hezkuntza Ministerioak ezarria (1791/2010 Errege Dekretua, abenduaren 30ekoa), zehazteari begira. Hobetzeko posibilitateen artean proposatu ziren jarduera ildo nagusiak, esparru akademikoa, zerbitzuak eta eskolatik kanpoko proposamenak.